



#### **4. AKTA**

**EZ-OHIKO UDALBATZARRA**, 2007ko maiatzaren 2an izandakoa.

NON: Pasaiako Hirian eta udaletxean.

NOIZ: Bi mila eta zazpiko maiatzaren bian. Bilkura-buru Izaskun Gómez Cermeño alkatea dutela, eta behin-behineko idazkari Joseba Belaustegi Cuesta bertan dela, zinegotzi hauek etorri dira:

PSE-EEtik

Lore Suárez Linazasoro andrea eta  
Juan Manuel Domínguez López jauna

EAJ-tik

José Luis Goikoetxea Garmendia jauna  
Juan Ignacio Lasurtegi Berridi jauna  
José Manuel Anso Martínez jauna eta  
Joaquín Martínez Vidal jauna

EA-tik

Miriam Cano Puy andrea  
Mariví Roteta Mujika andrea eta  
Aitor Larrañaga Burguera jauna

EB-tik

Jesús M<sup>a</sup> García Garde jauna eta  
Fco. Javier Pombo González jauna

Ez-ohiko bilkura egiteko elkartu dira goian izendatu ditugunak, aurretik bidali zaien bilera-deiari jarraiki. Ez dute ezin etorria justifikatu Juan Ramón González Medrano atxiki gabeko zinegotziak, Guillermo Sánchez-Berra Quintana eta José Luis Martínez de Espronceda Luiña PP alderdiaren zinegotziek eta Joseba Basterra Marfil PSE-EE alderdiaren zinegotziak. Ezin etorria justifikatu du Lucia Querido Noceti PSE-EE alderdiaren zinegotziak (osasun-arazoengatik).



Bilkura-buruak ikusi du batzordekide aski badagoela Udalbatzarra eratzeko, eta bilkurari hasiera eman dio 9:10ean; ondoren, gai-zerrendako puntu hau aztertzeari ekin zaio.

**Puntu bakarra:**

**Hauteskundeak: Udal-hauteskundeetarako eta Batzar Nagusietarako hauteskundeetarako mahaietako lehendakariak eta mahaikideak izendatzeko zozketa.**

Idazkariak Hauteskundeen Erregimen Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 26. artikulua irakurri ondoren, zozketa publikoa egin da, informatika-sistemaren bidez, maiatzaren 27ko udal-hauteskundeetarako eta Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hauteskundeetarako hauteskunde-mahaietan egongo diren lehendakariak eta mahaikideak izendatzeko.

Zozketa horren emaitza behar bezala izapidetuta geratu da espedientean.

Udalbatzarrak, hori ikusita, izendapenaren ekitaldi publikoa onartzea erabaki du, eta Hauteskunde-legearen 27.2. artikuluari jarraiki, dagokion eskualdeko hauteskunde-batzordeari jakinaraziko zaio emaitza, baita izendatutako pertsonen ere, hiru eguneko epean.

Eta aztertzeko beste gairik ezean, 9:20ean amaitu da bilkura. Bertan eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, nik, behin-behineko idazkariak, akta hau egiten dut, alkatearen oniritziarekin.